

BALOREZKO PROPOSAMENA:

- Gaur egungo gizartean arazo ekonomikoak dituzten, aldaketa klimatikoa geldiarazi nahi duten eta kirola egiteko motibazio falta duten pertsonak oso ugariak dira. Egoera honen aurrean gure produktua errentagarriaz izateaz gain sozialki aldea markatuko duen produktu bat sortzea bilatzen dugu.

Gure produktua elektrizitatea sortzen duen txirrinda estatiko bat da. Txirrinda erabiltzean energia sortzen da. Sortutako energia hori transformadore baten bidez elektrizitate bihurtzen da dagoeneko daukazun argindarrari gehituz. Honi esker, argindarraren kostua txikitu egiten da, kontaminazio maila txikitzen da eta kirola sustatzen da.

Kalitatea gure lehentasunetako bat da, beraz, diseinua eta segurtasuna kontuan hartzen ditugu. Beste ezer baino lehen, diseinua funtzional eta seguru bat egitea da gure helburua. Ondorioz, prezioan eragina izango du honek, 1000€ inguru balioko ditu.